



EZAGUTZA PROBETARAKO GAI-ZERRENDA

Bete gabeko postua: Enpresa-arloko arduraduna, Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritzan.

Ezagutza probaren **gutxi gorabeherako data:** 2018ko irailaren 14a.

Behin betiko data, ordua eta lekua: izangaiei jakinaraziko zaie hautaketa-prozesuko onarpenarekin batera.

Iraupena: 3 ordu gehienez azterketa egiteko.

Baldintzak: Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkaritzan bete gabe dagoen enpresa-arloko arduradunaren hautaketa-prozesuan onartua izatea eta identifikazio-dokumentu ofizial bat aurkeztea.

GAI-ZERRENDA

- 1.- Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozial eta politikoa: giza geografia, Autonomia Estatutua, egitura instituzionala (Legebiltzarra, hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak, Foru Aldundiak, Udaletxeak, Kontzertu Ekonomikoa, Eusko Jaurlaritza – osaera, funtzionamendua eta mendeko erakundeak-).
- 2.- Argentinako Errepublikako errealitate sozial eta politikoa: giza geografia, egitura instituzionala (Kongresu eta Senatu Nazionala, Argentinako Errepublikako eta Probintzien Gobernuak – osaera, funtzionamendua eta mendeko erakundeak-)
- 3.- Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia: indize makroekonomikoak, ekonomia-sektoreak, kanpo merkataritza, euskal enpresak eta ekonomia sustapena kudeatzen duten erakundeak.
- 4.- Argentinako Errepublikako ekonomia: indize makroekonomikoak, ekonomia-sektoreak, kanpo merkataritza eta ekonomia sustapena kudeatzen duten erakundeak.